

**BARNE-ARAUDIA****AURKIBIDEA**

- 1.- Sarrera.
- 2.- Gobernu-organoak.
- 3.- Abonatuak:
  - 3.1) Titularitatea, eskubideak eta betebeharrak.
  - 3.2) Arau orokorrak.
  - 3.3) Instalazioetarako sarbidea.
  - 3.4) Instalazioen eta zerbitzuen erabilera.
  - 3.5) Erabilerari buruzko arauak.
  - 3.6) Zelaira irteteko.
  - 3.7) Jokoaren garapena.
  - 3.8) Alokairuak.
- 4.- Instalazioak:
  - 4.1) Orokorra.
  - 4.2) Aldagelak.
  - 4.3) Makilen gela.
  - 4.4) Praktiketarako zelaia.
  - 4.5) Kafetegia.
  - 4.6) Jatetxea.
- 5.- Lehiaketa-batzordea.
- 6.- Arau-hausteak eta zigorrak.
- 7.- Azken xedapena.
  1. eranskina- Irteerak erreserbatzeko arautegiak
  2. eranskina- Txapelketetan izena emateko arautegia

## 1.- SARRERA

Bizkaiko Foru Aldundiak meatzaldeko ingurumena babesteko eta berreskuratzeko plan berezia sustatu du Abanto y Zierbenako, Urtuellako eta Trapagarango udalerrietan.

Jarduketa-eremuak 761 hektarea ditu –7.610.493 metro koadro–, eta lurzoru ez-urbanizagarria da.

Erreferentziako esparru horretan, Meaztegi Golf dago kokatuta. Izan ere, Lurralde Historikoko titularitate publikoko lehen golf-zelaia da, eta kirol-diziplina hori bultzatzea eta gizarteratzea du helburu nagusi.

Meaztegi Golf Espainiako Golf Federazioan inskribatuta dago, eta VB – 05 erregistro-zenbakia dauka.

## 2.- ZELAIKO GOBERNU-ORGANOAK

### a) Zuzendaritza-batzordea

Zelaiko zuzendaritza-batzordea sei kidek osatuko dute, eta euretako hiru Meaztegi, S.A. - Bizkaiko Foru Aldundikoak izango dira. Hirurotako bat presidentea izango da, eta kalitateko botoa edukiko du. Beste hiru kideak, ordea, UTE-MEAZTEGI-ekoak izango dira (instalazioak ustiatzen dituen sozietatekoak).

Zuzendaritza-batzordeak zelaia kudeatzeko organoaren eta horretarako sortutako batzordeen (diziplina eta onarpen batzordearen eta lehiaketa-batzordearen) zeregina kontrolatuko du.

Diziplina eta onarpen batzordea Meaztegi, S.A. – Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batek eta Meaztegi Golf-eko instalazioetako zuzendariak osatuko dute, eta hamabost egunean behin bilduko da.

### b) Kudeaketa-organoa

Zelaiko zuzendaria Meaztegi Golf-eko instalazioen kudeatzailea izango da.

Diziplina eta onarpen batzordean eta lehiaketa-batzordean parte hartuko du, eta gobernu-organoak bere erabakiak berretsi beharko ditu.

### **3.- ABONATUAK**

Edonor Meaztegi Golf-eko abonatuak izan daiteke, beti ere 14 urte bete baditu.

#### **3.1.- TITULARITATEA, ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

##### **1. ARTIKULUA**

Eskatutako baldintzak betetzen dituen edozein pertsona abonatuak izango da.

IZENA EMATEKO ORRIAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- NANaren fotokopia.
- Agiri-tamainako 2 argazki.
- Bizikidetzaz-ziurtagiria edo errolda-ziurtagiria.
- Meaztegi Golf-ek abonatu-kuotagatik edo beste zerbitzu batzuegatik jaulkitako ordainagiriak bankuan helbideratzeko baimena.
- Meaztegi Golf-en ustez beharrezkoak diren beste agiri batzuk.

Meaztegi Golf-ek egiaztagiri bana emango die abonatuari, eta pertsonala bezain besterenezina izango da.

##### **2. ARTIKULUA**

Abonatuak Meaztegi Golf-eko instalazioak erabiliko dituzte.

14 urte izanez gero, abonatuak banan-banakoak izango dira. Adingabeek familiaren baimena izan beharko dute.

Familiako abonuan, bikotea eta lehen mailako senideak egongo dira.

##### **3. ARTIKULUA**

Hona hemen abonatuaren betebeharrak:

- Dagokien urteko kuota ordaindu beharko dute.
- Zelaiko langileei euren egiaztagiria aurkeztu beharko diete, edozein zerbitzu kontratatzeke (green feea, alokairuak...).
- Federazioak 18 eta 9 zuloeko zelaietan sartzeko emandako lizentzia eduki beharko dute.
- Barne Araudia, Instalazioak Erabiltzeko Arauak, Etiketari buruzko Arauak eta Golf Arautegia onartu beharko dituzte.

#### **4. ARTIKULUA**

Honako egoera hauetan, abonatu-izaera galduko dute:

- Euren nahi dutelako. Halakoetan, idazkia bidali beharko diote zelaiko zuzendariari.
- Urteko kuota ordaindu ez dutelako.
- Urte naturalean zehar instalazioak erabili ez dituztelako.
- Diziplina-zehapena ezarri dietelako.
- Hil egin direlako.

### **3.2.- ARAU OROKORRAK**

#### **5. ARTIKULUA**

Lehiaketan egutegia aldeztatik prestatuko da.

Txapelketa-egunetan, horretarako baino ez da erabiliko zelaia.

Abonatuak behar den moduan zaindu beharko dituzte instalazioak, eta era guztietako ekintza suntsigarriak ekidin, eragotzi eta salatu egin beharko dituzte.

Obren, artapenaren, garbiketaren... ondorioz, zuloren bat edo beste instalazioaren bat aldi baterako itxiz gero, ez da inolako kalte-ordainik ordainduko.

Nolanahi ere, abonatuak jarraibideekin edo arauekin bat ez badatoz, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute. Horretarako, zelaiko zuzendariari idazkia bidali besterik ez dute.

### **3.3.- INSTALAZIOETARAKO SARBIDEA**

#### **6. ARTIKULUA**

Abonatuak edo erabiltzaile ez-abonatuak federazioaren lizentzia eta eskatutako handikapu eduki beharko dute golf-zelaia erabiltzeko.

Kafetegirako, jatetxerako eta dendarako sarbidea, ordea, doakoa izango da.

Jokoan zehar, golf-zelaiko erabiltzaileek green feearen ordainagiria eraman beharko dute soinean.

#### **7. ARTIKULUA**

Abonatuak egiaztatzea gaitzen badute, zelaiko administrazioari jakinarazi beharko diote, berria lortzeko. Hala ere, jaulkipen berriari dagozkion gastuak ordaindu beharko dituzte lehenago.

## **8. ARTIKULUA**

Golf-zelaiko instalazioetan, elkartetxean eta aparkalekuan sartzeko, baimendutako sarbideak erabiliko dira, horretarako zehaztutako ordutegian.

## **9. ARTIKULUA**

Meaztegi Golf-eko eremu osoan, ez dago animaliekin sartzetik edo beste pertsona batzuentzat edo instalazioentzat kaltegarriak edo gogaikarriak izan daitezkeen objektuak sartzetik.

### **3.4.- INSTALAZIOEN ETA ZERBITZUEN ERABILERA**

#### **10. ARTIKULUA**

Pertsona guztiek golf-zelaia erabiltzeko eskubide berberak dituzte, euren adina edo sexua edozein dela ere, abonatuak izan nahiz ez izan. Dena den, Barne Araudi honetan, Erabilerari eta Jokabideari buruzko Arauetan eta Golf Arautegian ezarritako mugak hartuko dituzte kontuan.

#### **11. ARTIKULUA**

Edozein instalazio edo zerbitzu erabiltzeko, Erabilerari eta Jokabideari buruzko indarreko

Arauk bete beharko dituzte.

#### **12. ARTIKULUA**

Golf-zelaiko langileek euren jarduketan gaineko erantzukizuna izango dute zelaiko

Zuzendaritzaren aurrean.

Zerbitzu eta kontratatutako langileek euren jarduketan gaineko erantzukizuna izango dute euren enpresen aurrean; eta enpresok, zelaiko Zuzendaritzaren aurrean.

Erabiltzaileek golf-zelaiko langileen eginkizunak oztopatzen badituzte, hutsegite larria izango da.

#### **13. ARTIKULUA**

Abonatuak eta erabiltzaileek golf-zelaiko langileek gomendatutakoa eta esandakoa beteko dute. Edonola ere, jarraibide horiekin edo langileen jokabidearekin bat ez badatoz, idazkia bidali ahal izango diote zelaiko zuzendariari, zer gertatu den azaltzeko.

#### **14. ARTIKULUA**

Golf-zelaiko langileek eta erabiltzaileek behar den moduan zainduko dituzte instalazio guztiak, eta era guztietako ekintza kaltegarriak ekidin, eragotzi eta salatu egingo dituzte.

### 3.5.- ERABILERARI BURUZKO ARAUAK

#### 15. ARTIKULUA

- A) Jokalekuan sartzeko, erabiltzaileek euren datuak eman beharko dituzte, eta joko- eskubideak ordainduko dituzte harrera-lekuan.
- B) Jokalekuko erabiltzaile guztiek Espainiako Golf Federazioak onartutako etiketako joko- arauak ezagutu, bete eta betearazi egin beharko dituzte.
- Era berean, jokalekuan sartzeko arauak, handicapak eta lehiaketa-batzordeak onartutako eta behar bezala zabalduko tokian tokiko arauak ere bete egin beharko dituzte.
- C) Golfean jokatzeko behar bezala jantzi beharra dago, eta janzkera hori derrigorrezkoa izango da golf-zelaietan, praktiketarako kantxan, putting greenean eta pitching greenean.
- Zelaian, golfeko oinetakoak erabiliko dira, eta metalezkoak ez diren iltzeak izango dituzte.
  - Ez dago praka bakerorik, "pirata-prakarik", kirol-prakarik, bainujantzirik eta antzekorik erabiltzerik.
  - Ez dago txandalik eta antzekorik erabiltzerik.
  - Gizonek idunak eta mahukak dauzkaten poloak erabiliko dituzte; eta emakumeek, idundunak eta mahukarik gabekoak.
  - Ez dago idun biribildun eta tirantedun kamisetarik erabiltzerik.
  - Emakumeek "pirata-prakak" erabili ahal izango dituzte.
- D) Jokalekuan eta inguruetan, hobe da jokoa asaldatzen ez duen ahots-doinuari eustea.

- Irteerak erreserbatzeko arautegiak (ikus 1. eranskina).

### 3.6.- ZELAIRA IRTETEKO

#### 16. ARTIKULUA

- A) Ezinbestekoa izango da federazioaren lizentzia edukitzea.
- 18 zuloko zelaian sartzeko, handicapak eduki beharra dago. Horrez gain, jokomailaren eta Golf Arautegiaren zein Etiketari buruzko Arauen ezagutzaren arabera egongo da berretsita.
- B) Aldez aurretik joko-eskubideak ordaindu beharko dira, eta, zelaiko edozein langilek eskatuz gero, ordainagiria erakutsi beharko da.

C) Marshallak eta/edo starterrak jokoaren abiadurari eta partiden eraketari buruz emandako jarraibide guztiak eta beste era bateko jarraibideak bete beharko dira derrigorrean.

D) Jokalekura irteteko ordua internet bidez, telefono bidez edo zelaian bertan erreserbatu ahal izango da. Green fee eta alokairuek jokatzeko eta kontratatutako zuloak erabiltzeko eskubidea baino ez dute emango.

Abonatuak erreserbatutako ordua baino hogeita minutu lehenago ordaindu beharko dituzte joko-eskubideak.

Aurkeztu ezean, eskubideak ordaindu beharko dituzte, eta, horrez gain, zigorren bat ezarri ahal izango diete hurrengo erreserbetan.

Jokatzeko erreserbatutako orduak 24 ordu lehenago ezeztatu ahal izango dituzte.

Jokalariak lau pertsonentzako ordua erreserbatu ahal izango dute gehienez ere, eta bere erantzukizuna izango da inolako arrazoirik eman gabe agertzen ez badira.

E) Jokalari ez-abonatuak kreditu-txartelaren zenbakia eman beharko dute erreserba egiteko orduan, eta, agertzen ez badira, kontu horretan bertan zordunduko diete erreserben zenbatekoa. Ezeztapenei buruzko arautegia abonatuak ezarritakoa izango da.

F) Txapelketetako inskripzioak zozketaren ordura arte ezeztatu ahal izango dira (abonatuentzat eta ez-abonatuentzat). Aurkeztu ezean, eskubideak ordaindu beharko dituzte, eta zigorren bat ezarri ahal izango diete hurrengo txapelketetan (abonatuak atzerapenak ordainduko dituzte hurrengo txapelketa baino lehen, beti ere bertan parte hartzen badute; eta ez-abonatuak euren kreditu-txartelean zordunduko diete ez- agerpenaren zenbatekoa).

G) Nolako erreserba egin den (9 edo 18 zuloa) eta zelaian zenbat jokalarik dauden kontuan hartuta, 1. zulotik edo 10. zulotik hasiko da jokia.

Zuloak elkarren segidan jokatu beharko direnez, ez dago zuloak egin gabe uzterik edo zulo batetik beste batera gurutzatzerik.

H) Ez dago pilota bi edo gehiago jokatzetik, arauko salbuespenetan izan ezik. I)

Jokalari ez-abonatuak.

Euren elkartearen lizentzia-ziurtagiria eta handicapa eraman beharko dituzte zelaira. Atzerriko jokalariek, gainera, dagokien aseguruia harpidetu egin beharko dute.

### 3.7.- JOKOAREN GARAPENA

#### 17. ARTIKULUA

- A) Ez dago orgarekin sartzetik eta makilen poltsa irteerako tee-etako gainazalean uzterik. B) Zaborrak botatzeko, paperontziak erabili.
- C) Ez mugitu eta ez hitz egin jokalariai jaurtitzeko prest daudenean. D) Irteerako tee-etako barrak errespetatu.
- E) Jokoaren hurrenkera errespetatu zeure partidari (banderatik urrunen dagoen jokalariai jokatuko du lehenago).
- F) Jaurtiketetan pentsatu, baina azkar ibili.
- G) Ez dago lau jokalaritik gorako partidari jokatzetik.
- H) Ez egin praktiketarako swingik tee-plataforman, zure txanda ez bada.
- I) Tee eta kaleetan ateratako txuleta jarri bere lekuan eta bunkerrak arrastelatu.
- J) Aurreko taldea pilotaz jotzerik baduzu, ez jokatu.
- K) Aurreko taldetik aldentuz gero atzeko partidari bidea EMAN BEHAR diogula kontuan hartzen badugu edo atzeko taldeak gure erruz aurrera egiterik ez duenean, astiro ez jokatzen edo pilota bilatzeko denbora EZ AGORTZEN AHALEGINDUKO gara.
- L) Lanegunetako iragaitza-lehentasanak: 2 jokalaria, 3ren aurrean; 3 jokalaria, 4ren aurrean.
- M) DERRIGORREZKOA izango da bunkerrean utzitako oinatzak arrastelatzea, pilota jaurtitakoan.
- N) Greenean: ez jauzi egin, ez eraman oinak herrestan, ez atera pilota zulotik puttaren buruaz, ez igaro orgaz, ez utzi poltsa, ez utzi bandera erortzen, ez jarri puttaren gainean, ez zapaldu zulotik hurbil eta ez zapaldu partidako kideen puttaren "linea". Irtenuneak eta iltzeek eragindako kalteak konpondu.
- O) Jokatu bitartean, ahalik eta gutxien erabili sakelako telefonoak. P) Jokodena denbora.  
Ibilbiderako zenbatetsitako denbora adieraziko da.  
Astiro jokatzen duten jokalariei lehen ohartarazpena egingo die marshallak.  
Marshallak joko motelaren gaineko bigarren ohartarazpena egiten badie, pilota hartu eta hurrengo teera joan beharko dira.  
Marshallak hirugarren ohartarazpena egiten badie, zelaitik kanpo irten beharko dira.
- Q) Buggiak bideetan zehar baino ez dira ibiliko. Hori dela eta, ez dago ibilgailuaz jokalekuan sartzetik.

### **3.8.- ALOKAIKUAK**

#### **18. ARTIKULUA**

ESKUKO ORGAK harrera-lekuan alokatuko dira.

ORGA ELEKTRIKOAK harrera-lekuan alokatuko dira, eta eskatutako alokairu-denboran baino ez dira erabiliko (3, 9 edo 18 zulo pare-zelaian).

BUGGIAK harrera-lekuan alokatuko dira, eta eskatutako alokairu-denboran baino ez dira erabiliko.

Buggia alokatzeko eta gidatzeko, 18 urtetik gora eduki beharko dira.

Toailak harrera-lekuan alokatuko dira, eta ez dira aldagelatik kanpo aterako.

#### **19. ARTIKULUA**

Zuzendaritza-batzordeak prezioak zehaztuko ditu.

Zerbitzuen eta alokairuen prezio guztiak iragarki-taulan eta web orrian egongo dira ikusgai.

### **4.- INSTALAZIOAK**

#### **4.1.- OROKORRA**

#### **20. ARTIKULUA**

Animaliek ez dute eremu osoan sartzerik.

Era berean, ez dago pilotaz, palez eta antzeko tresnez jokatzetik.

Eremuan bertan, ez dago bizikletarik, patinik, patineterik eta antzekorik erabiltzerik.

#### **4.2.- ALDAGELAK**

#### **21. ARTIKULUA**

Armairuak egunero erabiltzekoak izango dira.

Meaztegi Golf-ek ez du armairuetan gordetako objektuen gaineko erantzukizunik izango. Egunaren amaieran, aldageletan eta armairuetan utzitako arropa eta objektu guztiak bilduko dira.

Armairuko giltza itzuli ezean, 12 euroko zigorra ordaindu beharko da.

#### **22. ARTIKULUA**

Aldageletako moketa-eremuan ez dago golfeko oinetakorik erabiltzerik.

Golfeko oinetakoak horretarako egokitutako lekuetan eskuilatuko dira, elkartetxean sartu baino lehen.

#### 4.3.- MAKILEN GELA

##### 23. ARTIKULUA

Erabilgarritasunaren arabera, makilen poltsak gordetzeko zerbitzua eskainiko diegu abonatupei, makilen gelan bertan.

Locker guztiek giltzarrapoa daukate, eta abonatupei bertako giltza emango diete. Hala ere, segurtasuna dela-eta, giltza nagusia egongo da zelaiko bulegoan.

Meaztegi Golf-ek ez dauka gordetako poltsen eta makilen gaineko erantzukizunik.

Zerbitzua urte osorako alokatuko da.

Giltzarrapoko giltza galduz gero, 30 euro ordaindu beharko dira berria eskuratzeko.

#### 4.4.- PRAKTIKETARAKO ZELAIA

##### 24. ARTIKULUA

Erabiltzeko ordutegiak urte-sasoi bakoitzean indarrean daudenak izango dira.

Beharrezko arropa 15-C artikuluan adierazitakoa izango da, oinetakoei buruzkoa alde batera utzita.

Ez-abonatupek dagokien tarifa ordainduko dute.

Praktiketarako zelaitik pilotarik atereaz gero, hutsegite larria izango da.

#### 4.5.- KAFETEGIA

##### 25. ARTIKULUA

Kafetegiko zerbitzua jokatzeko ordutegiaren arabera izango da. Sarrera doakoa izango da jokalarientzat eta bisitarientzat.

Badago golfeko oinetakoak eta arropa jantzita kafetegian sartzerik.

#### 4.6.- JATETXEA

##### 26. ARTIKULUA

Jatetxeko zerbitzuak bere ordutegia izango du, eta behar bezala iragarriko da.

Bertan sartzeko, kaleko arropa eraman beharko denez, ez dago golfeko oinetakorik...

soinean eramaterik.

Harrera edo jai pribatuak eginez gero, ez dute zelaiko jarduera eta funtzionamendu arrunta eragotzi beharko, eta jatetxeko esleipendunak bezeroen jokabidearen eta instalazioen erabilera egokiaren gaineko erantzukizuna izango du.

## 5.- LEHIAKETA-BATZORDEA

### 27. ARTIKULUA

Lehiaketa-batzordeak lehiaketa guztiak antolatuko ditu, eta sistema informatikoan artxibatutako kirol-datuak gordeko ditu.

### 28. ARTIKULUA

Lehiaketen egutegia egingo da, eta honako hau adieraziko da bertan: zeintzuk diren abonatuentzako lehiaketak, zelaia sustatzeko lehiaketak, federazioko lehiaketak...

### 29. ARTIKULUA

Lehiaketa-batzordeak handicapak emango ditu, eta erabiltzaileen handicapetan gertatutako aldaketen ardura ere izango du.

### 30. ARTIKULUA

Lehiaketa-batzordea zelaiko zuzendariak, maisuak eta abonatuaren artean aukeratutako bost kide boluntariok osatuko dute.

### 31. ARTIKULUA

Lehiaketa-batzordeak lehiaketak behar den moduan garatzen direla eta Golf Arautegia eta Etiketari buruzko Arauak errespetatu egiten direla bermatuko du. Horrez gain, beharrezko erabakiak hartuko ditu, parte-hartzaileek arauok betetzen ez badituzte.

### 32. ARTIKULUA

Lehiaketetan gehienezko jokalaria-kopurua dagoenez, izena eman duten jokalarien kopurua gehienezko kopurua baino handiagoa bada:

- A) lehiaketa absolutuetan edo "scratchetan": handicap-hurrenkeraren arabera lehentasuna emango zaie, harik eta gehienezko kopurura iritsi arte.
- B) handicap-lehiaketetan: izena emandako hurrenkeraren arabera lehentasuna emango zaie, eta gainerako jokalaria itxaronzerrendan geratuko dira.
- Txapelketetan izena emateko arautegia (ikus 2. eranskina)

## 6.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

### 33. ARTIKULUA

Golfean jokatzean, LEHIAKETA-BATZORDEAK emandako arautegia, Golf Arautegia, Etiketari buruzko Arauak eta Adeitasunari buruzko Arauak betetzen ez badira, LEHIAKETA-BATZORDEAK GOLF-ZELAIA ez erabiltzeko agindu ahal izango du. Debeku hori, gainera, aldi baterakoa izan daiteke, bai eta behin betikoa ere, hutsegitea oso larria bada edo hutsegite arinak eta larriak behin eta berriro gertatu badira.

Kirolari berari begira, Bizkaiko Golf Federazioaren diziiplina-arautegia hartuko da kontuan;

eta besterik ezean, Espainiako Golf Federazioarena.

### 34. ARTIKULUA

Espedientea aztertu ondoren, zuzendaritza-batzordeak hutsegiteak zigortuko ditu, artikulua diluenteen eta dagokion idatz-zatian aipatutako zehapenen arabera. Nolanahi ere, UTE- GOLFek eragindako kalteengatiko ordainak eskatu ahal izango ditu.

Hurrengo artikuluetan, hutsegiteen aipamena besterik egiten ez dugunez, zuzendaritza- batzordeak beste suposamendu batzuk hartu ahal izango ditu kontuan.

### 35. ARTIKULUA

Honako hauek HUTSEGITE ARINAK izango dira:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko egoitza eta helbide aldaketen berri ez ematea.
- Bankuko helbideraketa-aldaketaren berri ez ematea.
- Instalazioen edo materialen artapenean edo garbitasunean eragina duten arduragabekeria txikiak garatzea.
- Golf-zelaietan edo instalazioetan arropa desegokia janztea.
- Langileen edo zerbitzuen instalazioetan baimenik gabe sartzea.
- Makilen gelako biltegian sartzea.
- Arropak edo objektuak adierazitako lekutik kanpo uztea.
- Autoa baimenduta ez dagoen lekuan aparkatzea: espaloietan, aparkalekuetatik kanpo...
- Garbitasunaren eta higienaren aurkako ekintzak garatzea: seinaleetan, eserlekuetan edo hormetan idaztea; paperak lurrera botatzea; edalontziak, botilak, ontziak edo hondakinak bertan behera uztea...

- Instalazioetan oihu edo zarata egitea edo zelaian dauden gainerako jokalariai gogaitzea.
- Aldageletan eta baimenduta ez dagoen lekuetan erretzea.
- Instalazioetako altzariak behar ez den moduan erabiltzea.
- Zelaiko Zuzendaritzaren baimena izan gabe, liburuxkak banatzea edo kartelak jartzea.
- Gainerako erabiltzaileekiko edo langileen errespetu-falta txikiak garatzea.
- Animaliak sartzea.
- Zelaiko langileek eskatzean, erabiltzeko eskubideak ez egiaztatzea.
- Adinaren arabera desegokiak diren instalazioetan egotea.

### **36. ARTIKULUA**

Honako hauek HUTSEGITE LARRIAK izango dira:

- Zuhurtziagabea izatea, beti ere istripu-arriskurik edo instalazioetako kalterik sortzen badu.
- Abonatuen agiria hirugarrenei uztea.
- Zehaztutako zenbatekoak ordaindu gabe, instalazioak erabiltzea.
- Beste erabiltzaile batzuk edo zelaiko langileak iraintzea eta mehatxatzea eta eurekiko errespeturik ez erakustea.
- Era guztietako istiluetan eta indarkerietan parte hartzea.
- Mozkorrik egotea.
- Baimenduta ez dauden sarbideetan zehar zelaian edo instalazioetan sartzea, babesak bortxatu ez badira ere.
- Zelaiaren, erabiltzaileen edo hirugarrenen higigarrietan edo higiezinetan larriegiak ez diren kalteak nahita sortzea.
- Iragarki-taulan ikusgai jarritako gaiak, kontrolerako osagaiak, armairuetako zenbakiak... aldatzea.
- Zuzenean edo zeharka edozein hutsegite larritan parte hartzea.
- Zuzendaritza-batzordeari edozein egintza zigorgarri argitzen ez laguntzea.
- Lanean ari den edozein langileren ohartarazpenak ez betetzea edo, langileek eskatutakoan, nork bere datuak ez ematea.
- Hiru hutsegite arin eginez gero, hutsegite larria izango da.

### 37. ARTIKULUA

Honako hauek OSO HUTSEGITE LARRIAK izango dira:

- Zelaiaren, erabiltzaileen edo hirugarrenen jabetzaren aurkako lapurretak garatzea.
- Langileekiko, erabiltzaileekiko edo hirugarrenekiko hitzezko edo ekintzazko tratu txarrak edo errespetu-falta larriak garatzea.
- Abonatu moduan izena emateko orduan eskatutako agirietako datuak faltsutzea.
- Zelaiaren, erabiltzaileen edo hirugarrenen higigarrietan edo higiezinetan kalte larriak nahita sortzea.
- Era guztietako hutsegite larriak behin eta berriro egitea.
- Hutsegite arinak edo larriak egiteagatik ezarritako zigorrak ez betetzea.
- Drogak edo estupefazianteak hartzea, garraiatzea edo trafikatzeta.
- Oro har, diziplinaren, moralaren edo ohitura egokien aurkako edozein ekintza garatzea, zelaiari, instalazioei, erabiltzaileei edo hirugarrenei dagokienez. Horrez gain, zuzendaritza-batzordearen iritziz, bere larritasuna kontuan hartuta, oso larria den edozein hutsegite garatzea.
- Hiru hutsegite larri eginez gero, oso hutsegite larria izango da.

### 38. ARTIKULUA

HUTSEGITE ARINETAN, zuzendaritza-batzordeak idatzizko zentzarazpena egingo die arau-hausleei edo hilabetetik beherako epean ez die instalazioetan sartzen utziko.

HUTSEGITE LARRIETAN, arau-hausleei abonatu-egiaztagiria kenduko zaie hilabetetik sei hilabetetara arteko epean.

OSO HUTSEGITE LARRIETAN, arau-hausleei abonatu-egiaztagiria kenduko zaie sei hilabetetatik urtebetera arteko epean. Era berean, behin betiko galdu ahal izango dute instalazioetako abonatu edo erabiltzaile izaera.

### 7.- AZKEN XEDAPENA

- Zuzendaritza-batzordeak Barne Araudi hau aldatu egin ahal izango du. Era berean, eskumen osoa izango du, araudi honetan jasota ez dauden gaiak konpontzeko.
- Indarreko Golf Arautegia eraginkorra izango da Barne Araudi honetan jasota ez dauden gaietan.

## 1.- ERANSKINA

### IRTEERAK ERRESERBATZEKO ARAUTEGIAK

#### ERRESERBAK

- Irteera-orduak erreserbatzeko eskabideak telefono bidez edo zelaian bertan egin ahal izango dira.
- Lanegunetako erreserbak astebete lehenago egin beharko dira.
- Larunbat, igande eta jaiegunetako erreserbak 2 egun lehenago egin beharko dira.
- Orduen erreserba goizeko 9:00etan hasiko da.
- 2,3 edo 4 laguneko taldeentzako erreserbak baino ez dira egingo.
- Bakarrik dauden jokalariai hutsuneetan kokatuko dira.
- Pertsona bakoitzak erreserba-ordu bakarra egin dezake, eta taldean parte hartu behar du.
- Talde baten izenean erreserbatzen duen pertsonak erantzukizuna izango du taldekide guztiak agertzen ez badira.

#### ITXARONZERRENDA

- Irteera-ordurik erreserbatzeriak izan ez duten jokalariai talde guztiak egongo dira bertan.
- Hutsuneetan eta ezeztapenetan kokatu ahal izateko, zelaian egon beharko dira eta starterraren jarraibideak bete beharko dituzte.
- Itxaronzerrendako talde edo pertsona bati jokatzeko deitzen badiote eta une horretan jokatu nahi ez badu, zerrendaren azken postura joango da.
- Zelaiko Zuzendaritzak irteera-orduak aldatu edo txandakatu ahal izango ditu, horren bidez atzerapenak konpontzem badiu edo zelaiko jarduerarako mesedegarria bada.

BARNE ARADIKO 3-5., 3-6. ETA 3-7. IDATZ ZATIAK HARTUKO DIRA KONTUAN.

## 2.- ERANSKINA

### TXAPELKETETAN IZENA EMATEKO ARAUTEGIA

#### IZEN EMATEKO PROZESUA

- Txapelketetan izena emateko eskabidea telefono bidez edo zelaian bertan egin ahal izango da.
- Izena emateko orduan, izena bi abizen eta lizentzia-zenbakia eskatuko zaizkie jokalariei.
- Txapelketa baino 10 egun lehenago, goizeko 9:00etatik aurrera eman ahal izango da izena eta txapelketa baino bi egun lehenago epea itxiko da eguerdiko 12:00etan.
- Txapelketan parte hartzeko asmoz, norbaitek beste pertsona batzuen izena ematen badu bere erantzukizuna izango da jokolariok egun horretan agertzea.
- Txapelketako gehienezko jokolari-kopurua betetzen bada, itxaronzerrenda irekiko da.
- Itxaronzerrendan daudenek agertzen ez direnen lekua beteko dute.

BARNE ARADIKO 3-5., 3-6., 3-7. ETA 5. IDATZ ZATIAK HARTUKO DIRA KONTUAN.

ERA BEREAN, ESPAINAKO GOLF FEDERAZIOAK TXAPELKETEI BURUZ EMANDAKO ARAUTEGIA ERE HARTUKO DA KONTUAN

#### JOKO MOTELA

- Espainako Golf Federazioak joko motelari buruz zehaztutako arauen arabera, ezin izango gara 5 ordu baino gehiago egon 18 zuloko ibilbidea egiten.
- Horretarako honako ohar hauek hartu beharko ditugu kontuan:
  - AURREKO TALDEA non dagoen jakin beharko dugu beti, talde horretatik ez aldentzeko.
  - Aurreko taldearen aldean, gure taldea astiro jokatzen ari dela uste badugu, partidako kideei adierazi beharko diegu zer gertatzen den.
  - Aurreko taldearen aldean, atzeratuta bagabiltza, galdutako distantzia BERRESKURATU beharko dugu AZKAR-AZKAR.
  - Es dugu atzeko taldearen ardurarik izan behar, euren joko motela bada, marshallak jakinaraziko dielako.